



Aveq-Kimikak, Enpresa Kimikoen Euskal Elkarteak, Segurtasun Sailaren kolaborazioarekin, larrialdi kimikoen sirenen sarea aktibatzen ariketa batzuk egingo ditu datorren azaroaren 20an eta 21ean Bizkaian, Araban, eta Gipuzkoan.

Aveq-Kimikak, Enpresa Kimikoen Euskal Elkarteak, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren Kolaborazioarekin, datorren azaroaren 20an eta 21ean, larrialdi kimikoen sirenen sarea aktibatzen hiru ariketa egingo ditu. Ariketa hauek Santurtzi, Getxo, Portugalete, Zierbena, Lantaron eta Hernaniko udalerrak hartuko dituzte eraginpean.

Ekimen hauen helburu nagusia izango da hurbileko biztanleak alarma-sistema horretara ohitzea; hain zuzen, SEVESO araudiaren menpeko industria kimikoetan sor litezkeen ihes toxikodun istripuei begira. Araudi horrek substantzia arriskutsuak tartean dauden istripu larrien prebentzioa erregulatzen du.

SIMULAZIOEN EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Data	Tokia	Enpresa	Gunea	Ordua
2018/11/20	Santurtzi	Puerto de Bilbao	Santurtzi Getxo Portugalete Zierbena	10:00
2018/11/20	Lantaron	Dekitra General Química Hexion Lantaron	Lantaron	13:00
2018/11/21	Hernani	Electroquímica Hernani	Hernani	11:00

Sirenek argi eta entzuteko moduan bi seinale-mota igorriko dituzte arrisku-gune osoan: bata ihes toxikoagatiko alerta adierazteko eta bestea alertaren amaiera iragartzeko. Alertari hasiera emateak berarekin ekarriko du, biztanleentzako lehentasunezko babes-neurri gisa, toki itxian konfinatuta geratzea.

Segurtasun Sailak Kanpoko Larrialdi Plan bat dauka eta horretan ezartzen dira larrialdietan giza baliabideak eta baliabide materialak koordinatzeko mekanismoak eta antolamendua, betiere larrialdiak fabrikaren kanpoaldean eraginik badu. Halaber, plan horrek biztanleak ohartarazteko modua ere barne hartzen du megafonia bidezko abisuak eginez, prentsan komunikatuak argitaratuz eta sare sozialen bidez.

Sirenen helburua abisu-sistema hori indartzea da eta, bestetik, alertaren berri berehala ematea; era horretan, eragindako biztanleek istripuetarako oinarritzko autobabes-aholkuak balia ditzaten.

Sirenen aktibazio simulatuaz gain, Aveq-Kimikak eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak komunikazio-kanpaina bat martxan jarri dute industria kimikoetatik gertu dauden biztanledun guneetan. Ekintza horien bidez lortu nahi da biztanleek industria-jarduera hori eta eragin ditzakeen arriskuak ezagutzea eta, bereziki, istripu bat gertatuz gero nola jokatu jakitea.

Argibide gehiago dokumentu honetan Arrisku Kimikoari buruzko Komunikazio Plana www.seguridadkimika.eus eta LAMZ-ko web gunean www.euskadi.eus/112 daude.